



(+34) 943 424119  
San Martin, 36 - 3.B  
20005 DONOSTIA

# Farmaberi

FARMAZILARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



## Farmazilariek osasun sistemen barne egoteko beharizana dute etorkizunean

*F*ailaren lehen astean, 2.500 farmazilari inguru bildu ziren Nizan urtero ospatzen den Farmazilarien Nazioarteko Federazioaren (FIP) biltzarrean.

Biltzar honetan, azken urteetan bere lehendakaria izandakoak farmazilariek osasun sistemetan sartzeko duten beharizana azpimarratu zuen baita horretarako deia egin ere bildu ziren herrialde guztietako ordezkariak. Era berean, gogor agertu zen farmazilarien elkartearen aurka, aldaketa sakon baten behariazanean ikusten baitzuen farmazilarien lanbidea. Farmazilariek ezin dutela etorkizuneko erronkei bizkarra eman ere adierazi zuen eta nahiz eta gaur egun eta piskanaka piskanaka gauzak aldatzen joan, ez zela oso baikor agertzen oraindano egindakoaz. Azken urteetan, gizartearen osasunaren hobekuntzarako farmazilariak eskaini dezakeena aztertzeke proiektu eta dokumentu ugari ari direla ugalitzen azaldu zuen. Azterketa hauek, etorkizuneko farmazilariek osasun sistemen partaide izan daitezkeela adierazten dute, izugarriko mesedea egin diezaiokelako farmazilariak gizarte osoaren osasunari. Baina nahiz eta berri itxaropentsuak izan, bidearen hasieran aurkitzen garela azpimarratu zuen eta aurrera egin ahal izateko elkarte bezela gogor lan egin beharko dugula. FIPeko lehendakari ohiaren esanetan, aldaketa honen beharizana ez litzateke far-

mazilarien onurarako bakarrik izango, gizarte osoaren osasunaren onerako baizik. Gizarteak ezin dezake farmazilarieek eskaini dezaketena alde batera utzi, orain arte egin den bezela. Prestakuntza zabal eta sakona duen elkarte izanik, mesede ugari egin dezakeelako osasun sistemen hobekuntzan, eta ondorioz gizartearen osasunaren hobekuntzan.

Bestalde, iadanik lanean diharduten farmazilarien aldaketek gain, unibertsitateen hezkuntza planak aldatzea ere beharrezkotzat jo zuen FIPeko lehendakari ohiak, etorkizuneko farmazilariek oinarri sendoak izan ditzaten aldaketei aurre egiteko. Etorkizuneko farmazilariek, gaisoaren terapian gehiago murgildu behar dutela adierazi zen biltzarrean eta horretarako ezinbestekotzat jotzen zen farmazilariak tratamendu guztiak individualizatzea eta prebentzio lanak aurrera eramatea. Tratamenduak individualizatzea, gaiso bakoitzaren terapia guztia idatziz jasotzean eta PRM edo mendikamentuekin erlazioz atutako arazoak aurkitu eta gerta ez daitezela laguntzean datza. Hau guztia, azkenaldian





horrenbeste entzuten den "Atentzio Farmazeutikoa" bezela ezagutzen dela eta aurrerantzean farmazilari guztien lanbidearen oinarria izango dela ere entzun zen biltzarrean.

Guzti honek, farmazilaria erantzukizun gehiago onartzera butzatzen du eta egin-beharreko lana ere areagotu egiten da. Horregaitik, guzti hau nola edo hala ordaindu beharko dela esaten dutenak ere gehiagotzen ari dira farmazilarien artean. Honi erantzunez, FIPeko lehendakari berriak argi eta garbi adierazi zuen lehenbizi egin beharrekoa, farmazilariak eskaini dezakeena gizarteari agertzea dela. Horretarako lehen bait lehen lanean hasteko deia egin zuen, ordain ekonomikoak etorkizunean etorriko direla esanez.

Azkenik, herrialde bakoitzak guzti hau aurrera eramateko duen gaiatasunaz mintzatu zen FIP eko lehendakari berria eta bere esanetan Frantzia eta Espainiar Estatuan, aldaketa hauek bideratzea nahiko erraza izango lizateke gaur egun daukaten egoerak horretarako erraztasunak jartzen baititu. Iadanik, zenbait espainiar erkidegok ideia hauek bere etorkizuneko planen barne sartzeko pausuak eman dituela esan behar da. Garapenaren bidean dauden herrialdeen egoera, bestalde, guztiz ezberdina dela azpimarratu zuen eta hauen behin behinoko helburua medikamentuen erabilera egokia bermatzea zela. Horretarako, FIPek eta OMSeK elkarrekin lan egiteko ituna hitzartu zuten, medikamentuak lortzeko zailtasunak dauzkaten herrialdeei laguntzeko. Laguntza hauek era askotakoak izango liriteke hoiaren artean aipagarriak hauek izango zirelarik: xertatze kanpainen beharrezana bultzatzeko kanpainak indartu, medikamentuen donazioen kontrola areagotu, medikamentu berrien aurkikuntzak bultzatea, herrialde txiroen aurre egiteko bezelako terapia merkeak sustatzea etabar.

Guzti hauen artean, aipamen berezia eta sakona egin zitzaion txerto eta administraziozko era berrien garapenaren beharrezanari. Gaur egun, txertoak seguruak ez direnaren susmoa zabaltzen ari da herrialde txiroetan eta hau horrela ez dela azaldu zen biltzarrean. Baliabide urriak dituzten herrialdeetan txertoak modu desegokian ematen direlako sortzen dira arazo ugari baina ez txertoak segurtasuna bermaturik ez dutelako. Honen inguruan, lan ugari egin behar dela esanez bukatu zuen FIPeko lehendakariak bere hitzaldia eta urteroko biltzarra.



## Soja eta beste medikamentu batzuk

### ELKARREN ARTEKO ERAGINA

Soja, Asiako ekialdean elikagai bezala asko erabiltzen den landarea da. Duela gutxi ikusi da, isoflabona erako fitoestrogenoak zituela, hau da, estrogeno gisara eragiten duela. Hau dela eta dietaren osagarri bezala edo eta botika bezala bere erabilera asko hazi da gure gizartean.

Soja, esan bezala, Asiako ekialdeko elikaduraren oinarria da, beste zenbait erabilere artean (irina egiteko, bere olioia pintura egiteko, ganadua elikatzeke...) ere erabiltzen dutelarik. Azken aldi honetan garbi dago, soja asko hartzea osasunerako oso ona dela. Ikusi da, Asiako ekialdeko emakumeengan menopausia-osteko aldaketa edo arazoak oso urriak direla. Fenomeno hau isoflabonen taldeko, fitoestrogenoei lotzen zaie, emakumei menopausia-ostean estrogeno-ordeko hauek erabiltzea gomendatzen zaielarik.

Ipriflabona, sojatik eratorria den isoflabona erdisintetikoa da, eta argitaratu da jadanik bere erabilera osteoporosiaren tratamenduan.

Ipriflabonak, P450 zitokromoko 1A2 isoentzimaren (CYP1A2) inhibitzaile bezala eragiten du, beraz bere metabolisiorako bide hau erabiltzen duten beste medikamentuen kontzentrazioa igorarazten du plasman, honekin batera bere toxikotasuna ere bai, noski.

"In vitro" ikusi da, CYP2C9 isoentzimaren inhibitzaile ere badela, nahiz eta saiakuntza klinikoetan, eta inorengan ez den baieztatu. Kasu honetan bide metaboliko honetatik doazen medikamentuekin, aurreko kasuko arazo berdinean egongo ginateke.

CYP1A2-ak metabolizatzen dituen botikak: Kafeina, Klozapina, Ziklobenzaprina, Fluboxamina, Haloperidola, Olanzapina, Propanolola, Takrina, Teofilina, Zolmitriptana.

CYP2C9-ak metabolizatzen dituen botikak: Zelecoxiba, Antiinflamatorio ez esteroidea, Fenitoina, Fluoxetina, Flubastatina, Tamoxifenoa, Warfarina, Zafirlukasta.

Bularreko minbiziaren prebentzioan antiestrogenoak (tomoxifenoa) erabiltzen dira, kasu honetan ere ez da komeni estrogeno funtzioa duten isoflabona hauek erabiltzea, tamoxifenoaren eragina murrizten baitute.

Beraz, isoflabonak eta aurreko talde hauetan sartzen den edozein medikamentu batera hartzen duten pertsoneri gertutik jarraitu behar zaie, aurkako eraginik agertzen ote den.

lazko abenduaren 15ean, farmazialari gipuzkoarrek, bere jai egunean, Iñaki Lasa Aiestaran lankideari Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren Gorespen saria eman zioten.

Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialak Elkargoaren Gorespen saria 1997an sortu zuen, zientzia farmazeutikoetan zein farmaziaren beste edozein arlotan nabarmendu den pertsona, erakunde edo instituzioa saritzeko. Diplomak, Elkargoko urrezko orratzak eta Eduardo Chillidaren grabatu batek osatzen dute saria. Orain artean hauek izan dira Elkargoaren Gorespena jaso dutenak: Miguel Azpilicueta Aguilargar jauna eta Paz Esnal Carballo anderea, 1997an; Jabier Saenz de Buruaga Renobales jauna, 1998an eta Charles D. Hepler jauna, Linda Strand anderea, Foppe van Mil jauna eta Maria Jose Faus anderea, 1999an.

Iñaki Lasa Aiestaran, Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialeko lehen-dakaria izan da (1978-1981). 1981ean, Medikamenduei buruz Informatzeko Zentroa sortu zuen. Bestalde, Elkargoko laborategiaren jardura suspertu zuen; Txirringularitzaren Nazioarteko Batasunaren dopin kontrolak egiteko homologazioa lortu zuen, hau da, laborategia onartua izan zen edozein proba ziklistaren kontrolak egiteko, mailak zeinahi zirelarik ere.

Iñakik, drogen arazoan aurrean arraz kezkatu, ekinga batzuk bultzatu zituen: "Drogak, Drogazaletasuna eta Farmakomendetasuna"ri buruzko Osasun Publikoko Lehen Aste Farmazeutikoa antolatu zuen, 1982ko maiatzaren 3tik 7ra; Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean aritu zen Drogaren Aurkako Borroka-Plan Batzordean eta, gero, Osasun Mentaleko Batzordean; psikotropoen errezetak (errezeta horia) sortu zuen Medikuen Elkargoa eta Insaludeko Zuzendaritza Probintzialarekin batera. Errezeta honi esker nabarmen jaitzi zen medikamendu hauen kontsumo ez terapeutikoa.

Iñakik 80 urte ditu. Eugenio bere aitaren ogibide bera aukeratu zuen eta horixe bera egin du Iñakik bere semeak. Aitaren jardunean aritzeko Compostelako Santiagora ikastera abiatu zen. "Bertan asko ikasi genuen eta lagun asko egin nituen, horietako bat Jose Antonio Loidi irundarra" dio minduta Iñakik, izan ere, Loidi laguna duela hiru urte pasa zendu zen.



## Iñaki LASA

# Orioko botikari jatorra

21 urte zituela aitarekin hasi zen lanean, geroago Iñakiren esku gelditu zen Orioko enparantzan dagoen botikan. "Lan asko egin nuen, botikak emateaz gain analisi ugari, laborategia bertan nuenez, eta egun osoa guardia eginez, botika bakarra baitzegoen Orion, eta egon behar..." azaltzen digu.

Iñaki eta Ramonita Erzilla bere emazteak, Down sindromea zuen semea izan zuten. Orduan zailtasun besterik ez zegoen, gaizki ikusita zegoen, gurasoek umeak izkutaturik zituzten eta eskolatarara ezin zuten eraman. Hori ikusita, Iñakik adimen urriko seme-alaben beste gurasoekin bildu zen egoera aldatzeko asmoz eta ondorioz 1960ko abenduan Atzegi jaio zen. Iñaki, Josetxo Egia apaiza eta beste lagunei esker. Egun egoera askoz hobea da, baina "lan asko egin ondoren" eta Iñakiren stetzez, batez ere, "Gureak tailerrak sortzea izan zen urrats garrantzitsuena".

Bestalde, Orioko gertakizun garrantzitsuen baten protagonista izan zen Iñaki.

Duela 25 urte, bere emaztearen etxean, Errepublika garaitik gordeta zuten ikurriña Udaletxera eraman baitzuen "txistulari eta herritar asko lagun genituela, gerran ibilitako gudariei deitu zitzaizkien, emozio handiko eguna izan zen Orion".

Horrez gain, erremonteko frontoiak sortu zituen Eugenio Azkue eta Angel Erzillarekin, "hasieran Galarreta Hernanin eta geroago Euskal Jai Uharten". Era berean, irratiko afizionatua ere bada, eta hori esker Ugartek ontzian munduari buelta eman zionean, egunero entzuten zioten hitz egiten, baita berekin hitz egitea lortu ere!. Beste behin, Mariaren konpainiako mojak "etxera etortzen ziren Zairekin hitz egitera, gerran baitzeuden".

Egun, estropadak ditu buruan, izan ere, bi biloba sasoiaren daude bandera ugari lortuz.

Farmazialari Euskaldunen Elkarteko ki-dea da hasieratik.

Bejondeizula, Iñaki!



## Beharrezkoa da sendabelarrak arautzea



Aurreko apirilaren 4an, OTIMEk (Medikamenduaren Nazioarteko Bulego Tekniko Fundazioa) Madrilen antolaturiko jardunaldietan, Espainiako Medikamenduaren Agentziako Zuzendaritza taldeko Ramon Palop jaunak esan zuen sendabelarrei buruz Ministro-Agindu bat prestatzen zihardutela. Agindu horrek xedatuko ditu farmazietan bakarrik dispentsatuko diren sendabelarrak eta salmenta libre izango dutenak. Ezin izan zuen zehaztu, ordea, Agindua aterako den data, hala ere, gaineratu zuen argitaratuko zela sendabelarrei buruzko Europako Arteztaraua argitaratu baino lehen.

Itxaro dezagun iragarpen honek geldiaraziko dituela belar-denda sektoreko ordezkarien eta farmazialarien arteko liskarrak. Hala ere, gaur egun, adituak ezkor dira, eta Agindua aterako den zailantza egiten dute.

Maiatzaren erdialdera, Osasun Ministerioak 60 produktu herbodietetiko inobilizatu zituen. Arrazoia, Espainiako Medikamenduaren Agentziak ez zituela ebaluatu ezta baimendu ere, nahiz haien konposizioagatik edo egokiespenengatik farmakoak diren. Aurten, uda hasi baino lehen, 232 produktu herbodietetiko erretiratu izan ziren zenbait Autonomi Erkidegoren ikerketen ondorioz. Arazoa joan den martxoan antzeman zen, legez kontrako hiru produktu argalgarri detektatu zirenean. Produktu hauek etxez etxe saltzen ziren eta zenbait pazienterengan toxikoak izan ziren. Hilabeta hauetan, Osasun Ministerioak produktu gehiago erretiratu ditu.

Medikamenduaren Legea 1990ean onartu zen. Hala ere, sendabelarrei dagokien 42. artukulua garatu gabe dago oraindik. Espainiako Medikamenduaren Agentzia garapen hau prestatzen ari zen

dekretu baten bidez, baina, iazko azaroan Agentziak berak dekretua artxibatu egin zuen Europako Arteztaraua prestatzen ari delako eta behin onartuz gero, Espainiako zuzenbide-ordenamenduan nahitaez sartu beharko da, Europako beste Estatuetakozuzenbide-ordenamenduan bezalaxe.

Egoera honetan, goian aipaturiko Ministro Agindua behin-behineko irtenbidea da baina balioko du sendabelarren antolamendua hobetzeko; azken buruan, sendabelarrak farmakoak dira eta kontrolatu egin behar, beste edozein farmako bezala.

Dekretua garatzerakoan, farmazietan bakarrik dispentsa daitezkeen konposatu fitoterapeutikoak eta zeintzuk izango diren salmenta librekoak eztabaidatu da gehien. Espainian, Medikamenduaren Legearen arabera sendabelarrak medikamenduak dira; hala ere, merkaturako arautu beharko zuen legerik ez dago. Hori dela eta, gaur egun, gutxi-asko eragin farmakologikoa duten landare asko produktu dietetikoaren katalogoan ager daitezke, ginseng kasu.

Europako Arteztaraua indarrean sartzeko epea 2004ko abenduaren 31 ean bukatzen dela aurreikusten da eta, onartu ondoren, merkaturatu jadanik dauden usadiozko medikamenduek bost urteko epea izango zuten arteztaraura egokitzeko. Araua gauzatzeko Gobernu guztien arteko bat etortzea beharrezkoa izango da. Ez da erraza izango, ordea, Europako Iparraldeko herrialdeek eta Mediterraneokoek oso farmazia-eredu desberdinak dituztelako. Zuzenbide-esparru berri honek bermatu nahi du, alde batetik, medikamendu hauen kalitate, segurtasun eta eraginkortasuna eta, bestetik, medikamendu hauen zirkulazio librea. Hala ere, proposamenaren berri-

tasunik handiena da medikamendu hauek erregistratzeko emango diren erraztasunak.

Nolanahi ere, irailaren hasieran,artzelona, Sendabelarren Ikerkuntzako Elkartek (SIPM) egindako 50 Biltzarrean, Agintariei zein Industria Farmazeutikolari eskatu zaie diru gehiago ematea fitoterapiari ikertzeko, eta, halaber, landareek izan ditzaten legez, farmako sintetikoek dituzten kontrol berberak.

## Ongi etorriak!

Apirilaren 14an, Batzar Egunean, 196 kide ginela genioen. Egun, ordea, gehixeago gara. Hauexek dira iazko urritik hona bazkidetu zaizkigun lankideok:

Gloria Agirre Egiguren (Aitzarna)

Maribel Alberdi Flamikiz (Ermua)

Oihana Arriola Capdequi (Sunbilla)

Argi Artabe Gomeza (Donostia)

Maidar Etxarte Subizar (Doneztebe)

Aloña Lasaga Rekondo (Bera)

Beatriz Odriozola Amenabar (Donostia)

Juan Osés Navascues (Zangoza)

Sara Peña Lizarralde (Orio)

Mercedes Sainz Pezonaga (Ziordia)

Edurne Zelaia Bañales (Donostia)

Guztiok zarete ongi etorriak!!

## Argitaratzeko prest Farmazia Hiztegia

Batzar Orokorraren egunean genioen Farmazia Hiztegia udazkenean argitaratu nahi genuela. Lanak bide onetatik datoz eta itxaro dugu laster izango duzula berri pozgarriak.